



Aitziber Beldarrain Robles

Erakundeen Baliabideetako zuzendaria.

TREBAKUNTZA

- Lizentziatura Ekonomian (1993-1998). Espezialitatea Egoera eta Sektore Publikoaren Ekonomian. Euskal Herriko Unibertsitatea
- Zerga Aholkularien goi-mailako ikastaroa (1998-1999). Gipuzkoako Merkataritza Ganbera.
- Euskara: C1 (EGA) / Ingelesa: B2

KARRERA PROFESIONALA

- Proiektuen kudeatzailea IKEI Research and Consultancy SAn (2016ko apirila-2017ko urria)
- Senior kontsultorea IKEI Research and Consultancy SAn (2003ko martxoa-2016ko apirila)
- Kontsultorea IKEI, Instituto Vasco de Estudios e Investigación SAn (1999ko otsaila-2003ko martxoa)

Aitziber Beldarrainek sektore publikoko aholkularitzan garatu du bere lanbide-karrera. IKEI Research and Consultancy SAn ekin zion bere lanbide-jarduerari 1999an, eta harrezkero lankidetzaproiektu ugari garatu ditu euskal Administrazio Publikoko zenbait eskalarekin, barnean hartuta Eusko Jaurlaritzako hainbat sail, erakunde autonomoak, erakunde eta elkarte publikoak, foru-aldundiak, udalak edo garapen-agentziak, besteak beste.

Hainbat arlotako proiektuen arduradun izan da: analisi makroekonomikoa, diagnostiko sozioekonomikoa, adierazle sintetikoaren *ad hoc* definizioa eta kalkulua, analisi sektoriala, lehiakortasunaren eta lurralde-garapenaren analisia, esparru publikoko plangintza estrategikoa, hiri-behatokien diseinua eta mantentzea, erakunde ofizialei emandako aholkularitza eragiketa estatistikoaren kontzeptualizazio metodologikoa egiteko edo laguntza edo diru-laguntza publikoen jarraipena eta ebaluazioa egiteko tresnen definizioa, besteak beste.